

2011ko EGITASMORAKO DEIALDIA

EUSKAL IDAZLE EGONALDIA « NEKATOENEA » etxean ABADIA EREMUA – HENDAIA

Euskal Idazleen Elkarteak, Euskal Itsasbazterreko IAEZIk (Ingurumen Aldeko Ekimen Zentro Iraunkorrek) eta Euskal Kultur Erakundeak beren baliabideak eta gaitasunak bateratzen dituzte Literatura Egonaldi bat antolatzeko 2011an, Abadia Eremuan. Egonaldia Hegoaldeko idazle bati zuzendua zaio.

- TOKIA : Nekatoenea – Abadia Eremua - 64700 HENDAIA
- **DATAK : 2011ko urriaren 10etik azaroaren 13a arte**
- IRAUPENA : hilabete bat
- ARTISTARI EMAN BEKA :
 - o 1000€
- ARTISTAREN ATERBETZEA :
 - o Tailer-apartamendu bat artistaren eskura jarriko da hilabete baterako Hendaia Abadia Eremuan kokatua den « Nekatoenea » etxean.
- BALORAZIO PUBLIKOA :
 - o Partaide egiturek arreta berezia emanen diote proiektu horri, literatura sorkuntza publikoarengan baloratua izan dadin, egonaldiaren bitartean eta 2012an zehar.
- EKOIZPEN MOTA ETA LAN GAIAK :

Artistaren esku utziko da ekoizpen motaren eta lan gaien hautua, kontuan harturik literatura sorkuntza euskaraz eginen dela. Hala ere, sorkuntzak oihartzun egin beharko dio Euskal Kultur Erakundearen « Hogeita » deitu urte anitzeko programa berriari. Programa horren xedea euskal kulturaren aniztasun osoa baloratzen duten proiektu berritzaileak gazteengan eta gazteekin sustatzea da :

 - 8 eta 15 urte bitarteko haur eta nerabeengan : euskal kultur oinordetzaren osagai nagusien transmisioari lehentasuna emanez.
 - 16 urtetik goitiko gazteengan : ahalbideak emanez gazte horiek euskal kulturaren atal batzuk birmoldatu edo berritzen dituzten proiektu berritzailearen eragile bihurtzeko.
- EZAUGARRIAK :
 - o Proposatzen dugun egonaldia gazte literaturari dagokio (bai eta kolegio zein lizeoko ikasleekiko bitartekaritza artistikoari ere).
- ATERBETZEA :
 - o Tailer-apartamendu bat artistaren eskura jarriko da hilabete baterako
- ELKARTUTAKO PARTAIDEAK :
 - o Ziburuko Piarres Larzabal kolegioa eta Baionako Bernat Etxepare lizeoa
 - o Hendaia Herriko Etxea / Itsasbazterreko Kontserbategia
- HAUTATZEA :
 - o Epaimahai batek du hautua eginen, hautagaitza txostenak aztertu ondoren. Partaide egitura bakoitzak ordezkari bat izendatuko du epaimahaian parte hartzeko.
- **HAUTAGAITZA AURKEZTEKO EPEA : 2011ko URTARRILAREN 30a**
 - o Euskal Idazleen Elkarteak · Zemoria kalea, 25 · 20013 Donostia (Gipuzkoa) ·
Tel.: 943 27 69 99 · Fax: 943 27 72 88 · eie@idazleak.org <<mailto:eie@idazleak.org>>

Argibide gehiagorako :

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA / DONOSTIA www.idazleak.org
<<http://www.salarekalde.bizkaia.net/>> & eie@idazleak.org <<mailto:eie@idazleak.org>>

EUSKAL ITSASBAZTERREKO IAEZI / HENDAIA
www.cpie.littoral.basque.eu <<http://www.cpie.littoral.basque.eu/>> &

cpielittoralbasque.sorkuntza@hendaye.com <<mailto:cpielittoralbasque.sorkuntza@hendaye.com>>
cpielittoralbasque.patrimoine@hendaye.com <<mailto:cpielittoralbasque.patrimoine@hendaye.com>>

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA / UZTARITZE www.eke.org <<http://www.eke.org/>> & eke-etchegoin@wanadoo.fr